

IRAGARKIA

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkureak, 2009ko ekainaren 4an egindako batzarrean, hasiera batean onartu eban Bidariak automobil arinetan garraiatzeari buruzko ordenantzea, eta 30 eguneko epean jendaurrean egon eta gero, behin betiko onartu da, ondoren adierazoten dan moduan:

Bidaiariak Automobil Arinetan (Auto-Turismoak) Garraiatzeko Zerbitzuari Buruzko Udal Araudia

I. Kapitulumua

Xedapen orokorrak

1. artikulua.-Udalarenak diren ahalmenak erabiliz udal mugarte honen auto-turismoen zerbitzua honako araudi honetan ezarri diren xedapenen arabera eraenduko da. Halaber, araudia, ondoko xedapen hauen arabera gertutu da: Motoreko Ibilgailuen Trafiko eta Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorra, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudia, 1979ko martxoaren 16ko Automobil Arinen bidezko Hiri eta Hiriarteko Garraio Zerbitzuei buruzko 763/1979 Errege Dekretua, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legea eta hau garatzen duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretua eta, azkenik, Udalak edo bere Alkatetza-lehendakaritzak horri buruz emango dituen erabakiak eta arauak.

2. art.-Honako araudi honen preskripzioei lotuta daude "B motako" alogeradun turismo ibilgailuak, "C motako" zerbitzu bereziak eta ordaindu beharrekoak eta "D motako" gidaririk gabeko ibilgailuak, azken horiek, beren beregi aplika daitezkeen gaitetan, 1979ko martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuan jasotakoarekin ere eraenduko direla. Halaber, "D mota" edo gidaririk gabeko ibilgailuen kasuan ere 763/1979 Errege Dekretua kontutan hartuko da.

3. art.-Zergen alorrean, auto-turismoen zerbitzua eskaintzen duten ibilgailuek ondoko zerga ordainarazpen hauek ordaindu beharko dituzte:

- a) Lizentzia ematea eta luzatzeagatiko tasa.
- c) Lizentzia eskualdatzeko baimenagatiko tasa.
- d) Udalak legez ezar ditzazkeen gainerako guztiak.

II. Kapitulumua

Lizentzien Emakidez

4. art.-Auto-taxi zerbitzua eskaintzen duten titularrek bidezko udal lizentziaren jabe izan beharko dute. Halaber, araudi honek araupetzen duen zerbitzu publikoa egiteko erabiliko diren ibilgailuek zerbitzugintza horretarako gai egiten duen lizentzia eduki beharko dute. Ibilgailu horiek, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan, lizentziaren titularraren jabeago gisa agertu behar dute.

5. art.-Udalak, lizentzia emateko, publikoari eskaini behar zaion zerbitzuaren beharrezakoa eta egokitasuna aztertu beharko du; hori guztia 1979ko martxoaren 16ko Nazio Araudiaren 11. artikulua ezarri duen eran bidezko da, urriaren 15eko 243/2002 Dekretuko 11. artikulua jasotzen dauanaren kalte barik.

6. art.-Udalak lizentziak eman eta egutegiko hirurogei eguneko epea dago titularrak zerbitzua ematen has daitezen, 243/2002 Dekretuaren 36.3 artikuluan jasotako salbuespenak salbu; zerbitzu horiek berehalakoak eta kasu bakoitzerako erabiliko diren ibilgailuekin burutu beharko dituzte.

Ibilgailuen jabeek Trafikoari buruzko Legean, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrean, 1979ko martxoaren 16ko Nazio Araudian, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legea eta hau garatzen duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan ezarri diren beharkizun eta legezko xedapen guztiak bete beharko dituzte

7. art.-Lizentziak norbanako jakin bati emango zaizkio eta ezin izango dira eskualdatu eta, ondorioz, lizentziaren titularrak ezin du inoiz besterenganatu, errentan eman, laga edo mailegatu. Manu honen kontrako urratzeak lizentzia galtzea ekarriko du.

Lizentziaren titularrak berak ustiatu beharko du zerbitzua eta ez dago baimenik gainerako inork ibilgailua gidatzeko, salbu eta gaixotasun edo istripu kasuetan; horrelakoetan era egokian frogatu beharko dira eta alde aurretik Udalarari jakinarazi, beti ere 243/2002 Dekretuaren 37.2. artikuluan ezarri denarekin bat.

8. art.-Lizentziak, aurretiaz baimena lortu ondoren, ondoko balizko hauetan baino ezin dira eskualdatu:

a) Titularra hiltzen bada, ezkontide alargunak edo legezko oinordekoek eskuratu ahal izango dute.

b) Erretiro kasuan.

c) a) atalean aitaturako alarguna edo legezko oinordekoek, ezin dutenean lizentzia ustiatu jarduera bakar eta erabateko legez.

d) Lizentziaren titularrak, gaixotasunagatik, istripuagatik edo indar jasanezina legez kalifikatu daitezkeen beste arrazoiren batengatik, lanbidean jarduteari utzi behar badio.

e) Lizenziaren titularrak, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna badauka. Honek, lizentzia besterendu ahal izango dau, Udalaren aurreiazko baimenagaz baina, ezin izango dau lizentzia barri bat eskuratu 10 urteko epean.

9. art.-Lizentzia bakoitza ibilgailu bakar baterako emango da; beraz, aurreiaz Udalaren baimenik izan gabe, lizentzia ezin izango da erabili beste inongo zerbitzutan aritzeko eta, beti, aldaketa zerbitzua hobetzeko baino ezin dela izan kontutan hartuta.

Udalak lizentzia hori ibilgailu berri bati aplikatzeko baimena ematen duenean, automatikoki deuseztatuko da zerbitzutik kendu den ibilgailuari eman zitzaiena.

Lizenziaren titularra denak ibilgailua saltzen duenean lizentzia horrek iraungi egingo du, salbu eta honen aurreko lerroketan adierazi diren ordezkapen eta lizentzia besterentzeen kasuetan.

10. art.-Auto-turismo lizentzia baten titularra izateko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Bermeon erroldatuta egotea eta, halaber, jarduerari ekiteko erabiliko den ibilgailua ere udalerrri honetan erroldatuta izatea.

b) Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 49. artikuluan ezarri diren bateraezintasun kasuetan erorita ez egotea.

c) Udalak ezarri dituen betebeharrak beteta edukitzea.

d) Trafikoari buruzko Legeak eta dagokion Araudiarekin bat, CI edo goragoko mailako gidatxartela edukitzea.

e) Zehapenetan oso larritzat jo den hobenengatik zehatua ez izatea eta lizentzia behin-betiko galduta ez izatea.

f) Trafikoari buruzko Legeak eta dagokion Araudiak eskatzen dituen gainerako beharkizunak izatea.

g) Auto-turismo jarduerari erabat dedikatzeko eragozpenak jarriko dizkion beste lanjarduera edo lanbiderik ez burutzea.

h) 2/2000 Legea eta 243/2002 Dekretuak eskatzen dituzten bestelako betebeharrak betetzea.

11. art.-Pertsona edo titular bati ezin zaio eman inoiz lizentzia bat baino gehiago.

III. Kapituluia

Zerbitzugintzaren baldintzez

12. art.-Lizentzien titularrek gaixotasun edo aldi baterako ezgaitasunengatik baxak jakinarazi beharko dizkiote Udalari, beti ere baxa horiek egutegiko hogei egun baino gehiagokoak direnean; halaber, balizko ordezkoren datuak jakinarazi beharko dizkiote.

13. art.-Udal lizentzien titulartasuna galdu egingo da beren beregi uko egiten zaionean edo oso larriak diren hobenak egiten direnean eta zehapenean lizentzia behinbetiko kentzea ebazten denean; halaber, titulartasuna jubilazioagatik galduko da.

14. art.-Auto-turismo lizentzia duten ibilgailuek horretarako ezarri diren geraleketan azaldu beharko dute eta bete beharko duten zerbitzua, gutxienez, 7 ordukoa izango da egunero; zerbitzu hori astean 6 egunetan eskainiko dute. Orduetgia lizentziadun ibilgailu guztien artean konbinatu beharko dute, xedea geraleku horiek goizeko 8etatik gaueko 22ak arte era egokian beteta eta zainduta egotea izango dela, igandeak eta jaiegunak barne. Orduetgi horretatik kanpo 16. artikuluan ezarri dena hartuko da kontutan.

Zerbitzuan etenak gertatzen direnean eta eten horiek egutegiko hiru egunekoak baino luzeagoak direnean eta bidezkotuta daudenean, Udalari eta bidezko elkarte edo gremioari jakinarazi beharko zaizkio.

15. art.-Auto-turismo zerbitzua hiri barruko zein hiriarteko bidarteetan eman beharko da; ibilgailuak taximetroa eta indarreko legeriari egokituta egongo diren modulu adierazleak izan beharko ditu; halaber, tarifa eta indarreango legediaren berri adieraziko duen modulu adierazlea izango dute.

16. art.-Nahitaezko gaueko txanda bat ezarri da; txanda horretan, gutxienez, bi ibilgailu izango dira. Orduetgi horretan Udaltzaingoak izango ditu gidari horien telefonoak.

Gaueko txanda gaueko 10etatik hurrengo goizeko 8ak artekoa izango da.

Taxisten gremioak edo elkarteak, ordezkari baten bidez, urtero azalduko dio txanden egutegia Udalari eta Udaltzaingoari; halaber, hilero edo aldeztu aurretik, sor daitezkeen aldaketa guztien berri emango dio, beti ere zerbitzua bermatzeko.

17. art.-Udalaren Osoko Bilkurak auto-turismo bakoitzarentzako geralekua esleituko du; erabaki hori hartzeko antzintasuna, historiala edo Korporazioak har dezakeen beste edozein irizpide arrazoitu hartuko da kontutan, bidezko gremioaren aurrean egin daitezkeen jendaurreko zozketa barne.

18. art.-Auto-turismo baten gidariak, nahitaez, zerbitzua eskatzen duten pertsona guztiei eman behar die eta ezetzak arrazoia beharko du izan; horrelako kasuetan interesatuak udaltzain bati deitu eta hark ebatzi beharko du zerbitzua bete behar den ala ez.

Une oro nahitaezkoa izango da eta lehentasuna izango dute agintaritzako agenteek eskatzen dituzten zerbitzuak ematea, esaterako, laguntzarako lekualdaketak.

19. art.-Bidaiariak ez duenean adierazi jarraitu nahi duen ibilbidea, gidariak bidatzarik laburrenetik edo une horretan egokiena denetik joango dira, beti ere zirkulazioaren gidalerroei, errepidearen mota eta egoerari eta abarri lotuta.

20. art.-Ibilgailua geralekuan dagoen artean gidariak ezin du utzi eta beti izan beharko du bertan.

21. art.-Gidariak ezin izango dute eragotzi bezeroek kotxean maletak edo bestelako fardel arruntak eramatea, baldin eta ibilgailuaren bakan edo maleta-eramailean sartzen badira, ibilgailua narriatzen ez badute edo horrekin indarreko arautegia hausten ez badute.

22. art.-Taxietan ez da onartuko animaliarik. Hala ere, gidariak nahi izanez gero onartu ahal izango ditu eta higiene eta osasungarritasun neurri egokiak hartu beharko ditu. Txakurra pertsona itsu baten laguntzailea bada, gidaria taxian onartzera beharturik dago.

23. art.-Gidariak bezeroei 50 euroen atzerako kopurua emateko beste eskudiru eta bilete eduki beharko du.

24. art.-Istripua edo matxura dela-eta, zerbitzua burutzerik ez badago, bidaiariak agintaritzaren agente bat esku hartzeko eskatu ahal izango dio, hura egiazta dezan, eta istripua edo matxura gertatzean emandako zerbitzuak balio zuena ordaindu beharko du, gutxiengo jasotzearen kopurua kenduta. Istripua edo matxura izan duen gidariak bidariari auto-taxi berria eskuratu beharko dio, erabiltzailea ibilgailu berrira sartzen denean hasiko delarik kontatzen tarifa berria.

25. art.-Indarreango Legearekin bat, debekatuta egongo da ibilgailu barruan erretzea, hala hiri barruko bidarteetan nola hiriartekoetan.

Halaber, eta indarreko legezko arautegiekin bat, gidariak ezin du egon alkoholdun edarien menpean zerbitzuan dagoenean edo zerbitzu hori ematea dagokionean.

26. art.-Zerbitzua amaitutakoan, gidari guztiek ibilgailua aztertuko dute, bertan objekturen bat ahantzita dagoen ikusteko; horrelakoetan Bermeoko Udaltzaingotik emango dio 24 ordu igaro aurretik.

27. art.-Gidariak ondoko hauek bete beharko dituzte:

a) Erabiltzaileekin eta agintaritzaren agenteekin burutzen duten harremanean erabateko begirunea izatea.

b) Zerbitzua ematen duten artean ez dute jango edo edango.

c) Zerbitzua burutzen dutenean ezin duten laguntzaile edo ikaslerik eraman alboan.

IV. Kapitulu

Geralekuez

28. art.-Udalak auto-turismoen geralekua edo geralekuak ezarriko ditu; halaber, horietako bakoitzean gera daitezkeen ibilgailuen kopurua ezarriko du.

29. art.-Ibilgailuak geralekura heltzen diren hurrenkerak ibilgailu horiek geralekuan izan behar duten hurrenkera ezartzeko balioko du; bidaiariak geralekuan dauden auto-taxietatik lehena hartu beharko du.

30. art.-Udal honek etorkizunean ezar ditzazkeen aldarazpenak gorabehera, Lamerakoa izango da geraleku bakarra.

31. art.-Geralekua edo geralekuak era egokian adierazita egongo dira eta bakoitzean bidezko errotulu bertikala jarriko da; halaber, marra hori batez mugatuko da geralekuarentzat gorde den esparrua zein den.

Geraleku horietan Udalak telefona jarriko du, baina deiak jasotzeko baino ez dena izango, debeku baita telefono hori deiak egiteko erabiltzea.

V. Kapitulu

Tarifez

32. art.-Auto-turismo zerbitzu publikoaren zerbitzugintza hiriko tarifa bakarra eta hiriarteko 2 tarifen bidez egingo da, hots, egunez egiten dena eta jaiegunez-gauez egiten dena. Hiriko tarifa Udalak jarriko du; hiriartekoak, ordea, Eusko Jaurlaritzaren Garraio eta Herrilanen Sailak ezarriko ditu. Tarifa horiek ibilgailuan doazen bidaiarien kopurua gorabehera izango dira.

Erabat debeku da indarreko tarifetan ezarri ez den inolako zenbatekorik kobratzea.

33. art.-Indarreko tarifak, hala hirikoak nola hiriartekoak, nahitaez azaldu beharko dute ondo ikusteko moduko lekuan erabiltzaileak informazio egokia izan dezan.

34. art.-Auto-taxien gidariek, eman duten zerbitzua gorabehera, zerbitzu horren ordainagiria edo faktura eman beharko dute.

VI. Kapitulum

Ibilgailuez

35. art.-Herri zerbitzurako diren ibilgailuek, gutxienez lau plaza erabilgarri izango dituzte, beti ere gidariarena aparte.

36. art.-Ibilgailuek, halaber, indarrean dauden arautegietan ezarrita daudenak bete beharko dituzte, hala ibilgailuaren egoerari buruzkoak nola bildu behar dituzten agiriei buruzkoak, horien barruan ibilgailu horrek behar duen udalaren auto-turismo lizentzia dagoela.

37. art.-Ibilgailuek, ondo ikusteko moduko lekuan "HUTSIK" dioen plaka ipini beharko dute une horretan ez duela zerbitzurik ematen adierazteko; halaber, "TAXI" modulu adierazlea azalduko dute.

Arauzko lekuan (S.P.) zerbitzu publikoa letrak dituen plakak jarriko zaizkie.

38. art.-Zerbitzu honetan jardungo duten ibilgailuak, nahitaez, kolore zuriz edo gris metalizatuz pintatuko dira, eta aurreko ateetan Bermeoko bandera jarriko da, luzetara, eta gainean Bermeoko Udalaren irudi korporatiboa izango dute, eta lizentzia zenbakia urdin kolorez.

39. art.-Indarreko arautegiekin bat, ibilgailuak desinfektatu egin beharko dira; udalari desinfekzio hori burutu dela frogatu beharko zaio eta ibilgailuan ondo ikusteko moduko lekuan indarreko desinfekzioaren frogagiria jarriko dute.

40. art.-Auto-turismoen jabeek artapen, segurtasun eta garbitasun egoera egokian eduki beharko dituzte.

Udalak, zuhurtziarakotasunez, ibilgailuak aztertu eta artapen eta jarduteko egoera berrikusi dezake. Ibilgailu horrek ez baditu betetzen baldintza egokiak jabeak 60 eguneko epearen barruan okerrak zuzendu edo ibilgailua ordeztu beharko du.

VII. Kapitulum

Taxisten gremioaz

41. art.-Auto-taxien lizentzia duten gidariek, hautespen sekretuaren bidez, hiru ordezkari hautatuko dituzte, hau da, lehendakari, lehendakariorde eta idazkari lanak beteko dituztenak, horien bidez Korporazioarekin edo beste herri erakunde batzuekin burutuko diren harremanak bideratzeko.

Goian aipatu diren ordezkariak urtero izendatu edo sendetsiko dira eta, bidezko ondoreetarako, hautatzen direnean Udalari jakinaraziko zaio.

42. art.-Lehendakariaren betebeharra izango da honako araudi honetan ezarri dena betetzea eta, beren beregi, 12 eta 16. artikuluetan ezarri direnak kudeatzea.

Halaber, honako araudi honen inguruko ez-betetze guztien berri udalari eman beharko zaio; Udalak bidezko espedientea hasiko du gaiari buruz ebatzi arte.

VIII. Kapitula

Hoben eta zehapenez

43. art.-Hoben oso larritzat ondoko hauek joko dira:

- a) Beharrezko lizentzia edo baimena izan gabe edo horiek iraungi ondoren zerbitzua ematea.
- b) Beste pertsona batzuen izenean emandako lizentzia edo baimena erabiltzea, edo, zerbitzua emateko, titularra edo izendaturiko gidaria ez den beste norbaitek gidatzea ibilgailua.
- c) Ikuskaritza, zaintza eta kontrol zerbitzuen lana zaildu edo horri ezetza ematea, eta, hortaz, araudiz dagozkien egitekoak betetzea eragozte.
- d) Lege honetan ezarritako zerbitzuak ematekoan lege-hauste penalak egitea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Kotxearen derrigorrezko aseguruak ez izatea.
- f) Arau-hauste larri bat egitea, baldin eta horren erantzulea artikuluko honen 2. paragrafoko letra berean tipifikaturiko arau-hauste larria egiteagatik aurreko urtebetean zigortua izan bada administrazioaren eta/edo epaileen erabaki irmo bidez.
- g) Ibilgailua mozkortuta edo sorgorgarrien eraginpean gidatzea.

44. art.- Hoben larritzat ondoko hauek joko dira:

- a) Lizentzietan eta baimenetan jasotako ibilgailuekin ez besteren batekin egitea garraio-lana, eta titulu gaitzaile horietan ezarritako lurralde-eremua ez errespetatzea.
- b) Lege honetan araututako jardueretan dedikazio eskusibo eta osoz ez jardutea, eta lizentzia eta baimen horietan jaso gabeko zerbitzuak egitea, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian xedatutakoa ez betez.

- c) Baimena jaso ondoren zerbitzua ematen ez hastea eta/edo hirurogei egun naturaleko epean geldituta egotea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.
- d) Zerbitzuari buruzko kexa eta erreklamazioak aurkezteko behar dituzten agiriak ez uztea edo eskuratzeko oztopoak jartzea erabiltzaileei. Kexa edo erreklamazio horiek administrazioari ezkutatzea edo, arrazoirik gabe, araudiz xedatuko denaren arabera horien berri ematea luzatzea.
- e) Derrigorrezko zerbitzuak ez ematea, eta, administrazioak halakorik ezarriz gero, ordutegiak eta atsedanak koordinatzeko araubidea ez betetzea.
- f) Erabiltzaileen zerbitzu-eskaerei jaramonik ez egitea, eta bidaiariak, eskatu duten zerbitzua bukatu gabe, baztertuta uztea, 4. eta 14. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatu ezik.
- g) Tarifen araubidea ez betetzea.
- h) Zerbitzuak egiteko ibilbide ezegokiak, erabiltzaileen interes ekonomikoarentzako kaltegarriak edo erabiltzaileek esandakoaren kontrakoak aukeratzea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.
- i) Zerbitzua kontratatu duen bidaiariak berekin ekarri ez duen beste norbait hartzea ibilgailuan.
- j) Ibilgailuak dituen jarlekuak banaka kontratatzea, bete beharreko arauetan jasotako kasuak ez badira.
- k) Hitz edo keinu zakarrak erabiltzea, eta erabiltzaileei, oinezkoei edo beste ibilgailuetako gidariei mehatxu egitea.
- l) Ibilgailuan utzitako gauzak gordetzea, eskumena duen organoari hirurogeita hamabi orduko epean jakinarazi gabe.
- m) Taximetro eta/edo modulurik ez izatea, ez erabiltzea edo behar bezala ez ibiltzea; ibilgailuan derrigor eraman beharreko beste edozein kontrolbide edo tresna ez izatea edo manipulaturik izatea, eta tresna horientzat edo ibilgailuentzat agindutako azterketak ez egitea.
- n) Bidaiariak lizentzia eman den herritik kanpo hartzea, bete beharreko arauetan baimenduriko kasua ez bada.
- ñ) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan aurreikusitako derrigorrezko aseguruak ez egitea.
- o) Baimenduriko bidaiariak baino gehiago garraiatzea.

p) Aurreko urtebetean artikuluko honen 3. paragrafoko letra batean tipifikaturiko arau-hauste arina egiteagatik administrazioaren eta/edo epaileen behin betiko erabaki bidez zigortu duten titular horrek berriro ere arau-hauste bera egitea.

45. art.-Hoben arintzat ondoko hauek joko dira:

- a) Araudiz exijitutako agiriak zerbitzua ematen den bitartean ez eramatea ibilgailuan.
- b) Agiriak agerian ez eramatea, derrigorrezkoa den kasuetan.
- c) Administrazioari nahitaez jakinarazi beharreko datuak ez ematea.
- d) Erabiltzaileekin edo hirugarrenekin begirunerik gabe portatzea, baldin eta larritzat tipifikatzeko arinegia bada.
- e) Titulu gaitzaileak ez bisatzea horretarako ezarritako epean.
- f) Gidaria bera txukun ez joatea, eta ibilgailua barrutik nahiz kanpotik garbi ez izatea.
- g) Araudiz ezarritako den kopururainoko trukerik (txanpon edo billetetan) ez ematea erabiltzaileari.
- h) Aurreko zenbakian aurreikusitako arau-haustea, baldin eta arau-hausteen izaeragatik edo inguruabarrengatik arintzat jo balitezke, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar den kasuetan.

46. art.-Aurreko artikuluetan adierazi diren hobenen ondorioz zehapenak sor daitezke; zehapenok ondokoak dira:

1.- Arau-hauste arinen zigorra: ohartarazpena eta/edo 46.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere hamabost egunerako kentzea. Larrien zigorra: 46.001 pezetatik 230.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere sei hilabeterako kentzea. Oso larriena: 230.001 pezetatik 460.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere urtebeterako kentzea.

Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan, zenbateko isuna jarri erabakitzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa izango da kontuan.

2.- Lege honen arabera egoki diren zigorrak gorabehera, arau-hauste oso larriak behin eta berriro egiteak, edo jarritako zigorra ez betetzeak, titulu gaitzailea ezeztatzea ekar lezake.

47. art.- Preskripzioa.

- 1.– Arau-hauste oso larriek hiru urtera preskribituko dute, larriek bi urtera, eta arinek sei hilabetera.
- 2.– Arau-hauste oso larriengatik jarritako zigorrek hiru urtera preskribituko dute, larriengatik jarritakoek bi urtera, eta arinek urtebetera.
- 3.– Bai arau-hausteen, bai ezarritako zigorren preskripzio-epea noiz hasi, noiz eten eta berriro noiz abiatzen den erabakitzeke, otsailaren 20ko 2/1998 Legean agindutakoari jarraituko zaio.

48. art.- Prozedurea.

- 1.- Lege honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko eta betearazteko prozedura otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari lotuko zaio.

Zigortzeko prozeduran har daitezkeen kautelazko neurriei buruz lege horretan xedatutakoa gorabehera, zerbitzu bat ematekoan Ordenantza honetako 43.a) eta 44.e) artikuluetan deskribaturiko kasuak atzemanenez gero, ibilgailua berehala geldiarazteko agindu ahal izango da, harik eta ustezko arau-hauste horren arrazoiak desagertu arte, eta administrazioak zerbitzua hobeto emateko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

- 2.– Administrazio-bideko erabaki finkoz ezarritako diruzko zigorrak ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da bisatua egiteko, baita lizentziak eta baimenak eskualdatzeko ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.-Araudi honetan ezarri ez den guztirako ondoko hauek aplikatuko dira: 1979ko martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuan, Bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legea eta hau garatzen duen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuan, Toki Korporazioen Zerbitzugintzari buruzko Araudia eta udalaren erabakiak eta ebazpenak; halaber, aplikazioaren alorrean dudak sortzen baldin badira, Udalak honako araudi hau interpretatzeko ahalmena gorde du.

Bigarrena.-Egun dauden auto-taxien lizentzen kopurua egokitzen jotzen dena baino altuagoa denez gero (auto-taxi bat mila pertsonako), Udalak, taxisten gremioak esan behar izan duena entzun ondoren, goian aipatu den zenbaki hori murrizteko bideak ezar ditzake, besteak beste, plazak amortizatzea edota baliagarritzat jo daitezkeen beste batzuk. Bermeon 2009ko urriaren 14an

2009-11-09 ARGITARATU DA